

PRODUKTU DISEINUA

Informazio orokorra

Formatua: Online nahieran eta aurrez-aurrekoa Arrasateko campusean (astean 1-2 egun)

Hizkuntza: Gaztelera

Plaza kopurua: 20

Nori zuzendua: Gradu guztiak (Industri Diseinua izan ezik)

Helburua



Produktu diseinuan trebatzea: Pertsonetan zentratutako diseinu metodologia eta erremintak ikasiko dituzu produktu diseinuan jarduteko gaitasunak garatuz.

Diseinu grafikoa eta alderdi estetikoak ere landuko dituzu produktu komunikazioan jarduteko.

Metodologia



- **Praktikoa % 100**
Ibilbidean landuko diren modulu ezberdinek izaera praktikoa izango dute.
- **Proiektua (produktu diseinuaren tailerra)**
Enpresa batek luzatutako erronka bati irtenbide berritzaile bat eman taldeko lanaren bitartez. Produktu berri baten garapena izango duzu ardatz erabiltzaileen beharren identifikaziotatik produktuaren prototiporaino.
- **Profesionalen ikuspuntua**
Industria diseinuan dabiltzan enpresetako profesionalen hitzaldiak eta tailerrak antolatuko dira (*product sketching* saioak, esperientzia praktikoak, etab.).

Kontaktua

Iker Legarda

ilegarda@mondragon.edu

+ Master
Sarbia

Produktu eta Zerbitzuen
Diseinu Estrategikoa

Ikasgaiak/Edukiak



Diseinu Metodologia

(4 ECTS / Gaztelera / Online nahieran)

Diseinu metodologiak eta tresnak jarriko dituzu praktikan erabiltzaileen azterketa, tendentzien azterketa eta sormena landuz.

1. Gaia. Diseinuaren pentsamenduaren oinarriak

- 1.1. Definizio orokorrak
- 1.2. Diseinuaren hastapenak
- 1.3. Diseinuaren diziplinaren eboluzioa eta tendentziak

2. Gaia. Pertsonetan zentratutako diseinuaren metodologiak eta tresnak

- 2.1. Esplorazioa: erabiltzaile analisia, merkatu analisia, tendentziak, etab.
- 2.2. Ideazioa: sormen ariketak.
- 2.3. Garapena: definizio teknikoa

Komunikazio Bisuala

(4 ECTS / Gaztelera / Online nahieran)

Diseinu grafikoaren oinarriak jasoko dituzu eta *Adobe Illustrator* eta *Adobe Photoshop* diseinu softwaretan trebatuko zara garatutako ideiak eta kontzeptuak modu erakargarri eta bisualean adierazteko.

1. Gaia. Ordenagailuz lagundutako diseinu grafikoaren alderdi teknikoak
2. Gaia. Pertzepzio bisuala
3. Gaia. Irudia ikerketa eremu bezala
4. Gaia. Kolorea komunikazio tresna bezala
5. Gaia. Gestalt, pertzepzioaren teoriak eta legeak.
6. Gaia. Zeinuen eta sinboloen teoria. Semiologia.
7. Gaia. Adierazpen grafikoaren lege eta teoriak.
8. Gaia. Tipografia komunikazio tresna bezala.

Kontaktua

Iker Legarda

ilegarda@mondragon.edu

+ Master
Sarbia

Produktu eta Zerbitzuen
Diseinu Estrategikoa



Produktu diseinuaren tailerra (7 ECTS kopurua/ Gaztelera/ Erdipresentziala)

Enpresa batek produktu berri bat diseinatzeko erronka luzatuko dizu. Lantaldean, proiektu multidiziplinar batean, erronka horri irtenbidea ematen dion produktu berritzaile bat diseinatu beharko duzu, beste ikasgaietan landutako edukiak aplikatuz. Proiektu erdiko mugarrian eta bukaeran, zure proiektua enpresari aurkeztuko diozu eta bere feedbacka jaso.

Gainera, proiektua aurrera eramaten laguntzeko “pildora” saio batzuk izango dituzu:

- 1. pildora.** Produktu diseinuan aditua: produktu diseinuaren aplikazioaren arrakasta kasuak.
- 2. pildora.** Diseinu inklusiboa: pertsona guztiak aintzat hartzen dituen diseinua.
- 3. pildora.** Product sketching: produktuen diseinurako *sketch*-ak nola egin.
- 4. pildora.** 3D rendering: ordenagailu bidezko produktuen adierazpen errealistikak.
- 5. pildora.** 3D inprimaketa: diseinatutako produktuaren prototipoa eraiki.

Ikasgai honen formatua erdipresentziala da: astean behin edo bitan proiektuaren mugarri nagusietara (hasiera, erdiko mugarria eta aurkezpen finala) eta formakuntza pildoretara etorri beharko duzu, beste guztia online nahieran egin dezakezu.

Kontaktua

Iker Legarda

ilegarda@mondragon.edu

+ Master
Sarbia

Produktu eta Zerbitzuen
Diseinu Estrategikoa